



## ERANSKINA

Eref	Lanpostua	Hor.	Taldea	O.E.	Maila	H.E.	B.E.	Campus	Zerbitzua	Saila	Lanaldia
<b>F 168</b>	Langileen Ikasketa, Plangintza eta Prestakuntzako Kabineteko Burua	1	A	01	25	3.95/01		Bizkaia	Pertsonaleko Gerenteordetza		N
<b>F 1087</b>	Ikastegiko Teknikaria	3	A/B	01/06	23	3.12/12	11B2	Bizkaia	Bilboko Ingeriaritza G.E.T.		N
<b>F 264</b>	Biblioteka Zerbitzuaren Arduraduna	8	A/B	07/08	23	3		Bizkaia	Bizkaiko Campuseko Biblioteka		NS

OE:	Kidegoa
01	Gestio Teknikaria
01/06	Gestioko Teknikaria/Unibertsitate Gestio
07/08	Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Ahaldunak./Artxibo, Biblioteka eta Museoetako Aiutariak

B.E.:	Betebehar espezifikoak
11B2	Ingelesa jakitea B2 Maila



### **1.-Parte-hartzaileak.- Aldi baterako betetzeko betebeharrak**

(Administrazio eta zerbitzuetako pertsonal funtzionarioari zerbitzuen betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioaren 4. artikulua, gobernu kontseiluak 2014ko uztailaren 10ean berretsia).

Funtzionarioek hartu ahal izango dute parte jarduneko zerbitzuan badaude edo nahitaezko eszedentzian, seme-alabak zaintzeko eszedentzian, edo beste administrazio publiko batean aritzeko eszedentzian egonik edo borondatezko eszedentzia hartuta egonik lanera itzultzea eskatu badute (eszedentzian eman beharreko gutxieneko denbora behin igarota azken kasuan), honako kasu hauetako batean egon ahal izango direlarik:

- a) Karrerako funtzionarioak dei egindako lanpostuaren talde eta eskala berekoa badira, talde eta eskala bikoitzera irekitako kasuetan izan ezik. Lanpostuotan talde eta eskala bietako funtzionarioek hartu ahal izango dute parte, dei egindako lanpostuak eskatutako betebeharrekoak beteta.
- b) Talde bereko baina beste eskala bateko karrerako funtzionarioak badira.
- c) Karrerako funtzionarioak deitutako lanpostuaren beheagoko hurrengo talde eta eskalakoak badira.

Parte hartuko ahal dute, era berean, UPV/EHUn bitarteko funtzionario izendatutako pertsonak, baldin eta dei egindako lanpostua betetzeko baliatu beharreko lan poltsatik badatoz. Hautatu ahal izango dira zerbitzuen betekizuna karrerako pertsonal funtzionarioari ezin adjudika badakioke.

Deialdian parte hartu ahal izango du dei egindako lanpostuaren betebeharrak betetzen dituen pertsonalak, baldin eta eskariak aurkezteko epea amaitzeko data baino urte bete lehenago zerbitzu betekizunen bidezko izendapenik jaso ez badu dei egindako lanpostuetarako, prozedura honen bidez lortuta.

**2.-** Eskatutako lanpostuak derrigorrezkotetasun-data indarrean badu, **dagokion hizkuntza eskakizuna gaindituta izatea** euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura mailekin parekatzeko den Dekretuak adierazten duen legez (Azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua) edo, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara-maila hizkuntza-tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko den Dekretuan esandakoari jarraituz. (Apirilaren 3ko 47/2012 Dekretua).

**3.-** Deitutako lanpostuek ezagutzako baldintza espezifikorik badaukate, hori betetzen dela egiaztatzea